

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irurnero

359

Urriak 15, 2019

- 2 Irun atzo Irun Gaur
- 3 Berri laburrak
- 4-5 Etorki Games
- 6 Mendibil Prestakuntza Zentroa
- 7 Hegaztien migrazioa
- 8 Kirolak: Real Union
- 9 Kirolak: Ander Elosegi
- 11 Haurren leihoa
- 12 Gazteen lanak
- 13 Betti Gazte: Ikasleak ingurumenarekin
- 14 Gazte informazioa
- 15 Agenda

**Olinpiadetarako pasea eman dion zilarrezko  
domina lortu du mundialean Ander Elosegik**

- ✓ **Oinarrizko lanbide heziketa:** sukaldaritza, informatika eta ile-apainketa
- ✓ **Erdi-mailako zikloa:** ile-apainketa eta estetikak
- ✓ **Goi-mailako zikloa:** ile-apainketa eta irudi pertsonala



#### Enpleguaren formakuntza:

- ✓ Lanbide/Hobetuz/SEPE
- ✓ Langile zein langabetuentzako formakuntza.
- ✓ Presentzialak eta online.
- ✓ %100ean finantzatuak.

Kalitatezko formakuntza

[www.apmendibil.eus](http://www.apmendibil.eus) / 945 610 610 / Leburbarrak: Hiribidea, 58, Irun / [info@apmendibil.eus](mailto:info@apmendibil.eus)

EMAN IZENAI



## Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?



REF: G57693



REF: G38198



REF: G62636

1919 urteko urriaren 19an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkarian hiriaren gaurkotasunarekin loturiko albiste eta kronika ugari irakur daitezke. Aldizkariak Doña Anunciacion Rodriguez eta Arpideren heriotzaren berri ematen duen eskela batekin hasten bada ere, orokorrean, tranbia elektrikoak Irun eta Hondarribia artean eskeiniko duen zerbitzuaren inauguraziorekin loturiko albisteak eta nobedadeak asko dira. Adibidez, aldizkariaren hasieran tranbia zerbitzua erabili ahal izateko erabiltzaileek ordaindu beharreko prezioez hitz egiten da, prezio garesti horien aurrean etorkizuneko erabiltzaileen haserrea agerian uzten delarik. Orri horren amaieran "R."-k sinatutako artikulua batean ere, tranbiak eskeiniko duen zerbitzuaren eta eraikuntza lanen kostuaren inguruko iritzi artikulua irakur daiteke. Aurrerago, orain arte tranbiaz tiraka lan egin dute idien etorkizunaz gogoeta egiten da aldizkarian publikatutako idatzi batean.

Tranbiaz gainera, bestelako gaiak lantzen dira zenbaki honetan ere. Adibidez, lehen orrialdean "Basurko'tar Jon"-ek sinatutako "Iñudia" olerkia irakur deiteke eta jarraian Juraristi doktorearen ordezkapenaren berri ematen da idatzi labur baten bitartez. "Aspectos locales" atalean, berriz, azken gertaeren berri ematen duten albiste laburrak biltzen dira, hala nola, Principal antzokian egindako denboraldiko lehen dantzaldiaz, kirol taldeen denboraldi hasieraz eta modisten ohi-turen inguruan hitz egiten da bertan. Bigarren orrialdean, ordea, hirian gertatutako lapurreten berri ematen duen albisteak irakur daitezke.

Kiroletan, berriz, futbol denboraldiaren hasiera da protagonista nagusia. Hala ere, igandean Amuteko pistetan egindako atletismo txapelketaz hitz egiteko tarteak eskeintzen da ere. Horren ostean, Cristobal Coloni "Arrazaren Jaiaren" bitartez egindako omenaldia aipatzen da eta langileen errenta eta jaso daitezkeen diru-laguntza posibleekin loturiko informazio guztia laburbiltzen da artikulua sakon baten bitartez.

Leon Iruretagoyena alkatearen gidaritzapean egindako udal bilkurako azken erabakiak zerrendatu ostean, hiriko antzokien hurrengo egunetarako programazioa errepasatzen da, 1883 urtean "El Bidasoa" aldizkari berean argitaratutako albisteen errepasoan egin eta azkenik "Ecos de sociedad" atalaren bitartez goi-klaseko biztanleen bizitzetako azken gertakari garrantzitsuak laburbiltzeko. Azkenik, publizitate orrialdeak itxiera ematen dio zenbaki honi ohikoa den moduan.

**Argazkiak.**

**G57693:** Colon pasealekuaren hasiera, argazkian tranbia ageri delarik.

**G38198:** Behobiako nazioarteko zubi zaharra, atzean Pausuko auzoa ikusten delarik XX. medearen hasieran.

**G62636:** Real Union taldeko jokalariek 1920 urtean.

**IRUNERO****Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena  
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus  
irunero@irunero.eus

**Publizitatea:**

Amaia Terrazas  
(amaia@irunero.eus)  
Ion Otxoa  
(ion@irunero.eus)  
Joseba Arozena  
(jarozena@irunero.eus)

**Diseinua eraberritzea:**

Andrea Gomez Arocena

**Argitaratzailea:**

837 comunicación y publicidad S.L  
www.837comunicacion.com

**ISSN:**

1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943 04 20 52

**Wegunea:** irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



# Benito Lertxundiren kontzertua izango da azaroaren 2an Irunen

Benito Lertxundi musikariak kontzertua eskeinko du Irunen azaroaren 2an. Emanaldia Amaia Kultur zentroan izango da larunbat arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Kontzertuan euskal musikagintzako erreferente ezinbestekoa den abeslariak bere azken diskoa aurkeztuko du: Ospakizun gauean.

2011 urtean Irunen eskeinutako azken emanaldiaren ostean, Benito Lertxundi hirira itzuliko da bere azken lana aurkezteko. Musikari oriotarraz gainera, eszenatoki gainera diska berriaren grabaketan parte hartu duten musikariak igoko dira.

Ospakizun gauen diskoa osatzen duten abesti berriez gain, Lertxundiren abesti mitikoak entzuteko aukera izango dute entzuleek bi ordutik gorako iraupena izango duen emanaldian zehar.

## Sarrerak salgai

Sarrerak eskuragarri daude jada eta 22 euroren truke ohiko salmenta tokietan eskuratu ahalko dira: sarreraren salmentarako udal webgunearen lotura jarraituz ([www.irun.org/entradas](http://www.irun.org/entradas)) edo Luis Mariano Turismo Bulegoan. Hortaz gain, emanaldiaren egunean sarrerak soberan egonez gero, emanaldia baino ordubete

lehenago Amaia Kultur Zentroko leihatilan salduko lirateke azken sarrera horiek.

## Ospakizun gauean

Ospakizun gauean diskoa 10 abestiz osatutako Lertxundiren azken lana da eta kontzertuan zuzenean lagunduko dioten musikariekin batera interpretatuko dituzten diskoan bildutako abestiak Lertxundik. Gainera, disko honek sortu berri den Kantaita Enea zigilua eskuratu duen lehen albumetako bat izan da. Diskoa 2018 urteko apirila eta maiatzaren artean grabatu zen Elkarren estudioan Victor Sanchezekin.

Hauexek izan dira diskoaren grabaketan parte hartu duten artista eta musikari guztiak: Benito Lertxundi eta Olatz Zugasti (produktzioa); Amaia Cajarville (baxua eta kontrabaxua); David Gorospe (bateria); Pello Ramirez (biolontxelo eta akordeoia); Gurutz Bikuña (gitarra elektriko); Xabier Zeberio (biolina eta kyckelharpa); Juantxo Zeberio (pianoa, organoa eta sintetizadoreak); Angel Unzu (gitarra akustikoa, bouzuki eta perkusioa); Intza Unanue (koruak) eta Olatz Zugasti (koruak, programazioak eta arpa). Musikari talde honek Amaia Kultur Zentroa musikaz beteko du azaroaren 2an.

# Menchu Galen jaiotzaren mendeurrena ospatzeko erakusketa

Urriaren 11tik urtarrilaren 19ra bitarte Menchu Gal artistaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko erakusketa egingo da. Erakusketa artistaren izena daraman aretoan egingo da eta 21 obren bilduma ikusi ahalko da bertan. "Margotzeko bizi, bizitzen margotu" izenburua duen erakusketa artista irundarraren jaiotza omentzeko antolatua den ekitaldi nagusietako bat izango da. Erakusketa ostirala eta larunbatetan 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara bisitatu ahalko da.

Erakusketak artistaren 21 obra biltzen ditu, udal bilduma, Menchu Gal fundazioa, kolektio pribatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kolaborazioaren bitartez bildu direnak. Lanen artean Irun eta Txingudi badiako pasaiak ikusi ahalko dituzte erakusketaren bisitariak. Hortaz gain, artistak magotzea atsegin zuen loreen lan ugari erakutsiko dira, Menchu Galek kolore ezberdinak lantzeko zuen gustua gogora ekartzeko.

## Bilduma katalogoa

Erakusketaren harira, 315 orriz osatutako katalogo bat eratu da artista irundarraren lana laburbiltzeko. Katalogoak euskara eta gaztelerazko edizioak izango ditu eta 20 euroren truke eskuratu ahalko da. Bertan, Edorta Kortadi, María Córdor, Francisco Calvo Sarrallera eta Miguel Zugazaren testuak biltzen dira.

## Bestelako ekintzak

Erakusketaz gainera, bestelako ekintzak antolatu dira Menchu Galen jaiotzaren 100 urteak ospatzeko. Adibidez, formatu handiko oinarri batzuk kokatu dira hiriko puntu ezberdinetan, Menchu Galen 8 koadroen erreproduktzio handiekin. Hortaz gain, hiriko elkarte ezberdinekin kolaborazioak egin dira ere mendeurrenaren honen harira. Adibidez, Marrazki eta Pintura akademiak data berezi horrekin loturiko ekintza ugari antolatu zituen programa honen barnean. AFI elkarteak, berriz, "argazki-elkarrizketak" erakusketarekin 12 margolanen interpretazioa egin zuen argazkilaritzaren bitartez. Il Duomo elkarteak hizketaldi bat antolat du duela gutxi 5 emakume artistekin, parte-hartze zabaleko mural bat egiteaz gainera.



 **Olaizola**  
INMOBILIARIA AGENTZIA

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585  
info@inmobiliariaolaizola.com  
[www.inmobiliariaolaizola.com](http://www.inmobiliariaolaizola.com)

# Etorki Games enpresa

Etorki Games 2013 urtean Alex Camarero eta Ion eta Pablo Ocasar anaia irundarrek martxan jarritako enpresa da. Diseinatzaile eta programatzaileen lana elkartuz bideojokoen sorrera helburuzat duen enpresa martxan jartzea erabaki zuten inguruan merkatu horrek zuen hutsunea aprobetxatzen saiatzeko. Hasierako urte haietatik gauza asko aldatu dira, izan ere, enpresa era nabarmenean handitu da eta lan-taldea handitzeko beharreak ikusi dira proiektuak aurrera ateratzeko. Egun bideo-joko mundu osoan ezagunak dira, Europa osoan, Estatu Batuetan edo Tailandia bezalako herrialdeetan jarraitzaileak dauzkatelarik.

**Zergatik ipini zenioten enpresari Etorki Games izena?**

Ion: Izen original baten bila genbiltzan eta bertako hitz bat erabiltzea bururatu zitzaigun. Horrela, "etorkizunetik datozen jokoak" zentzua eman nahi izan genion izenari.

**Zaila izan zitzaizuen hasieran bideojokoen merkaturuan sartzea?**

Ion: Hasieran "Tower Defence" bezala ezagutzen diren jokoen sorreraren bitartez merkaturuan sartzen saiatu ginen bertan topatutako hutsunea betetzeko asmoz. Jokoa sortu eta merkatura atera genuenean, ordea, denbora gutxian gauzak asko aldatu zirela ikusi eta jokoak arrakasta gutxi izan zuen.

**Orain arte zenbat bideo-joko garatu dituzue?**

Ion: Denetik egin dugu. Iraupen luzeko bideo-jokoak egiten hasi ginen, baina, beranduago joko txikiagoak sortzea guretzat egokiagoa zela konturatu ginen eta joko txikien sorreran topatu dugu gure arrakasta. Hain zuzen ere, hortik dator askok interneten gu identifikatzeko erabiltzen duten "Keplerians" izena.

**"Joko txikien sorreran topatu dugu gure arrakasta"**

Ion Ocasar, programatzailea eta bideo-joko diseinatzailea

**Nolakoa da bideo-joko baten sorrera prozesua?**

Alex: Ideia eta aurkaria zeintzuk izango diren zehaztea da lehen pausua. Ondoren, zereginak banatzen ditugu orain talde handiagoa garelako aprobetxatuz. Alvaro marrazkilariak lehen irudiak sortzen ditu ideari forma emateko, jarraian, ideia modelatu eta margotzeko. Orain 3D-tako irudiak sortzen ditugu gure jokoetarako. Azken pausua animazioa izango litzateke, programatzailearen lanaren bitartez pertsonaia jokoan integratu aurretik. Optimizazioan dena elkartu eta jokoa nahi den plataforman publikatzeko prest egongo litzateke jada.

**Zein plataformekin lan egiten duzue bideo-jokoak**



**zabaltzerako orduan?**

Pablo: Hasieratik plataforma mugikorretan zentratu dugu gure lana, izan ere, ordenagailurako jokoak sortu ahal izateko errekurtsio, langile eta finantziario gehiago behar zelako. Gainera, garai hartan merkatu mobilaren gorakada gertatzen ari zen, pertsona gutxiaren artean joko txikiak sortzeko aukera ematen ziguna.

**Kategoria eta adin guztietarako bideo-jokoak sortzen dituzue?**

Pablo: Beti jokalaririk guztientzako jokoak sortzea izan dugu helburu, talde zehatzegia hautatuz gero zailagoa izango litzatekeelako gure jokoak ondo posizionatzea eta arrakasta lortzea.

**Zenbat deskarga izan ditzakete zuen jokoek?**

Ion: Crossy Creeper jokoak izan da orain arte deskarga gehien izan dituen jokoak 7.000.000 deskargekin. Orain, izuarekin loturiko bideo-jokoekin lanean ari gara eta gutxienez 1.000.000 jaitsialdiak gaitutuko direla zihurta-

turik dugu. Duela hilabete gure azken bideo-jokoa atera genuen eta jada 1.000.000 deskargetatik hurbil dabilela dakigu.

**Nolako harrera izan du zuen azken jokoak?**

Pablo: Ice Scream jokoarena orain arte izandako merkaturatzerik onena izan dela esan dezakegu. Publikoa jokorekin zain zegoela bagenekien aurretik antzeko beste bi izu-joko atera genituelako, besteetan zihurtasun gutxiago izan dugu. Harrera nahiko ona izan du, beraz, oso pozik gaude. Hemendik aurrera hazten jarraitzea espero dugu eta horrela antzeko jokoak egiten jarraituko dugu.

**Zeintzuk dira joko arrakastatsu bat sortzeko gakoak?**

Pablo: Hori zehaztea zaila da, joko motaren arabera baita. Izan ere, joko batzuek egunero jolastea eskatzen dute. Beraz, jokoak ondo bideratzea garrantzitsua da, hauek ondo monetizatu eta etekin ekonomikoak lortu ahal izateko.

Neumáticos  
**txepetxa**

NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,  
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99

# irundarraren errealitate birtuala



**Bere garaian Irunekin lotutako turismo-aplikazio bat garatu zenuten ezta?**

Pablo: Bai, turismo aplikazio bat zen eta ukitu dibertigarria eman nahi izan genion. Jokoaren helburua hiriko zenbait leku bisitatzea zen eta opari moduan hiriko erai-kinen irudiak 3D jasotzen zituzten erabiltzaileek.

**Jendeak egoitza Irunen duzuela ezagutzen duela uste duzue?**

Alex: Ez, nik uste jendeak ez dakiela. Hala ere, guk ez diogu garrantzi handirik ematen gai horri eta jendearentzako nahiko ezezaguna da Irunen ere mota honetako enpresak daudela.

**Nondik lortzen dituzue enpresa aurrera ateratzeko diru-sarrerak?**

Alex: Gehien errepikatzen den galdera izan ohi da, doha-koak diren jokoak sortzen ditugu eta. Batez ere, publizitatearen bitartez lortzen dugu dirua, jokalariek publizitatea ikusten dutenean. Hala ere, publizitatea neu-

**“Ice Scream jokoarena orain arte izandako merkaturatzerik onena izan dela esan dezakegu”**

Pablo Ocasar, programatzailea

rriz erabili behar da jokalaria ez aspertzeko eta jokatzeari ez uzteko. Era berean, YouTube bezalako bideo plataformetan jokalariek publikatzen dituzten bideoak eta iruzkinak oso garrantzitsuak dira.

**Etorkizunari begira, aurrera eraman nahiko zenukete ideiarik duzue buruan?**

Alex: Bai, jendearen eskakizunak entzuten jakitea garrantzitsua da joko arrakastatsuak sortu ahal izateko. Bu-

**“Jendearen eskakizunak entzuten jakitea garrantzitsua da joko arrakastatsuak sortu ahal izateko”**

Alex Camarero, diseinatzailea

ruan ideia ugari dauzkagun arren, ideia horiek garatzeko denbora behar dugu, azken finean, xehetasun asko lotu behar dira eta lan talde txikia dugu.

**Noiz ikusi ahalko dugu hurrengo bideo-jokoa?**

Alex: Oraindik gure azken bideo-joko hobetzeko lanetan murgildurik gabiltza orain. Gainera, azken joko hau hainbat zatitan banatu dugu, kapitulu berriak sortu eta pixkanaka horiek publikatzen joateko.



**Coach-a eta era zoriontsuan produktiboa izateko prozesuetan akonpainamendua**

- Coaching pertsonalizatua: ahalduntzea, determinazioa eta gogobetetasuna.  
**Zure ametsak betetzeko baimena emaitza zure buruari!**
- Talde coaching-a: Kohesioa, zorianasuna eta produktibitatea.  
**Egin ezazu zure taldea zoriontsu era produktibo batean.**
- Tailerrak eta konferentziak: garapena eta motibazioa lortzeko.



info@anaeguiababal.es  
www.anaeguiababal.es

# Kalitatezko formakuntza Mendibil Prestakuntza Zentroan



Letxunborro hiribideko 58. zenbakian kokatutako Mendibil Prestakuntza Zentroak kalitatezko formakuntza eskaintzen du arrakastaz betetako etorkizun batentzat. Mendibil Prestakuntza Zentroak 25 urte baino gehiago daramatza 500 ikasle baino gehiago prestatzen zentroan eskaintzen diren modalitate ezberdinen artean. Bere sorreratik kalitatezko heziketaren proiektu baten aldeko apustua egin du Mendibil Prestakuntza Zentroak balio sozialak oinarri hartuta. Eskaintza zabal baten barnean goi eta erdi mailako graduak eskaintzen dituzte, bestelako ikastaro eta laguntzen artean.

Kalitatezko formakuntzaren eskaintzaren barruan, Mendibil Prestakuntza Zentroak Eusko Jaurlaritzak homologatutako heziketa zentroa da. Lanbide Heziketako oinarriko formakuntzaren barnean, ile-apaindegia, informatika eta komunikazioak eta sukaldaritza eta zaharberritze ikastaroak eskaintzen dituzte.

## Goi eta erdi mailako zikloak

Erdi-mailako zikloen artean, batetik, ile-apainketa eta kosmetika eta, bestetik, estetika eta edergintza (eskaintza partziala) zikloak eskeintzen ditu Mendibil Prestakuntza Zentroak. DBHko titulua eskuratu duten 17 urtetik gorako ikasleei zuzendutako zikloak dira, bi urteko iraupenarekin. Goi-mailako lanbide heziketa zikloaren eskaintzaren barnean estilismo eta ile-apaindegia zikloa eta irudi aholkularitza pertsonala eta korporatibo zikloa eskaintzen dira formakuntza zentro honetan. Goi-mailako ziklo hauetako batean sartu ahal izateko Batxilergoko titulua edo Gradu Ertaineko Teknikari titulua izatea beharrezkoa izango da. Goi-mailako ziklo hauek 2.000 orduko iraupena izango dute. Oinarriko lanbide heziketa ikastaro edo erdi- eta goi-mailako zikloak amaitzerakoan izaera ofiziala duen ziurtagiria eskuratu dute ikasleek. Ziurtagiri horiek balio berbera izango dute eremu nazional guztian, nahiz eta ikasketak autonomia erkidego batean zein bestean ikasketak gauzatu.

## Langile eta langabetuentzako formakuntza

Aurretik aipatutako eskaintzaz gain, langileentzako formakuntzaren lanketari garrantzia ematen zaio Mendibil Prestakuntza Zentroan Lanbide, Hobetuz eta SEPE/FUNDAE-ren bitartez profesionaltasun ziurtagiriak lortzeko aukerarekin. SEPE bitartez eskaintako ikastaroak online edo aurrez-aurre egiteko aukera dagoela gogorarazte du zentroak.

Lanbideren kasuan honako ikastaroak eskaintzen dira: higieneko depilaziozko eta makillajeko estetika-zerbitzuak, ile-apainketa, nekazaritzako jarduera osagarriak, loradendako jarduerak eta esku-oinen estetika-zainketa. Hortaz gain, ibilgailuen karrozeria mantentzeko eragiketa osagarriak eta mintegi, lorategi eta lorezaintza-zentroetako jarduera osagarrien ikastaroak eskaintzen dira ere Mendibilen zentroan. Profesionaltasun ziurtagiriak, batez ere, langabeei zuzenduta daude. Sarbide eskakizun desberdinekin 3 ziurtagiri profesionalen mailak dauzkate.

Hobetuz fundazioa, berriz, ziurtagiri profesionalen katalogoarekin lotutako prestakuntzari dagokio. Hobetuz fundazioak, Lanbide eta SEPE-k eskaintako ikastaroak bezala, %100ean finantziatutako formazioa eskaintzen du, honela eta ikastaroak birziklatze profesionalerako prestakuntzara bideraturik daude.

Prestakuntza eskaintzeko bi modu daude: eskaintza aktiboa (katalogatu gabeko ikastaro laburrak) eta katalogo modularra (onartutako ziurtagiri profesionalak). Hobetuz fundazioak eskeinitako ikastaroak pertsona aktiboei esklusiboki zuzendurik dauden ikastaroak dira.

Azkenik, SEPE/FUNDAE bitartez eskaintzen den formakuntza hobaridun gabea da, diruz lagundua dago eta doakoa da.

- ✓ Oinarriko lanbide heziketa: sukaldaritza, informatika eta ile-apainketa
- ✓ Erdi-mailako zikloa: ile-apainketa eta estetika
- ✓ Goi-mailako zikloa: ile-apainketa eta irudi pertsonala



## Enpleguaren formakuntza:

- ✓ Lanbide/Hobetuz/SEPE
- ✓ Langile zein langabetuentzako formakuntza.
- ✓ Presentzialak eta online.
- ✓ %100ean finantziatuak.

# Hegaztien migrazioan ezkutakutako bidaia txundigarria



“Txoriek bide milenarioak erbailtzen dituzte migrazioan zehar”

Mikel Etxaniz, hegazti aditua

Migrazioa izaki bizidunek bizirauteko garatu duten estrategia da, batez ere, hegaztien artean oso erabilia dena. Migrazioaren ondorioz txoriek bizileku ezberdinak izan ohi dituzte urtean zehar, Europako iparraldeko negu gogorrek saihestu eta urtato gogorrenak hegoaldean igarotzea ahalbideratzen diena. Txingudi Ekoetxean migrazio prozesu horren barnean eskualdetik igarotzen diren espezieen zenbaketa eta kontrola gauzatzen dute.

Txingudi Ekoetxeko Mikel Etxaniz adituak azaldu duenez migrazioa prozesu luze eta zabala da, udazkenean eta udaberrian errepikatu ohi dena. Udazkeneko prozesua luzeagoa izaten da normalean, hegaztiak uztaile eta azaro arteko hilabeteak migratzeko erbailtzen baitituzte. Udaberriko itzulera, berriz, martxoan hasi eta maiatzara arte luzatu daiteke.

Ibilbide horren barnean, Txingudi badiak oso kokapen berezia du, izan ere, Iberiar penintsularen sarreran kokaturik baitago. Mikel Etxaniz adituak azaldu duenez, “txoriek bide milenarioak erbailtzen dituzte migrazioan zehar”. Bida horren barnean txoriek Pirinioen mendikatea eta Kantauri itsasoa bezalako eremuak saihesten dituzte eta, ondorioz, Txingudiko lurra ezinbesteko igarobide bihurtzen dira Europako iparraldetik datozen hegaztientzat. Bertatik igarotzen diren txori asko Mediterraneo inguruan gelditzen

dira negua pasatzera, beste asko Saharako Basamortua zeharkatu eta Afrika tropikalerraino iritsi daitezkeen bitartean. Espeziei dagokienez, mota askotako hegaztiak igarotzen dira Txingudiko lurretatik migrazio prozesuaren barnean, nahiz eta geldialdia egiten duten txorien kopurua txikiagoa den. Bertan geldialdia egitea hautatzen duten txorien artean ur-hegaztiak dira nagusi. Hala nola, kaiokak, lertxunak, ahateak, kulixkak eta beste hainbat, ur-hegaztien familia oso zabala baita.

XX. mendearen amaieran Plaiundi Parke Ekologikoa inauguratu zenetik eskualdea zeharkatu duten hegaztien kopurua oso altua zenbatu izan da beti. Hegaztien kopuruan aldaketa gutxi egon bada ere, hegaztiak parkean egiten duten egonaldia era nabarmenean luzatu da. Honela, azken urteetan zehar parkearen egonaldi kalitatea hobetu dela kontsideratzen da, txoriei atsedean hartu eta elikatzeak aukera ematen baitzaie.

Migrazioaren iraupenari dagokionez, oso aldakorra da aztertutako espeziearen arabera. Harrigarria badirudi ere, askotan txori txikiek migrazio bidai luzeenak egiten dituzte, geldialdi askorekin, beraz, prozesuak hainbat hilabete har ditzake. Hegazti handiagoez berriz, hegaldi autonomi handiagoa dutela esan daiteke, beraz, eskala gutxiago egiten dituzte eta jarraian milaka kilometrotako hegaldiak egin ditzakete.

## Kontrolerako sistema ezberdinak

Hegaztien kontrolerako sistema ezberdinak erabiltzen dituzte adituek gaur egun. XX. mendetik aurrera eraztun jartzea izan da gehien erabili den metodoa. Animalia hankan zenbaki bat duen eraztuna lotzen da nortasun-agiri funtzioa bete dezan, txoriaren identifikazioa errazteko. Gaur egun, ordea, bestelako sistemak erabiltzen dira teknologiaren garapenari esker. Honela, beste kasu batzuetan GPS txikiak txertatzen zaizkie, hegazti handien mugimenduak zehaztasun handiagoz neurtzeko.

## Migrazioaren atzeko arazoak

Migrazioa eta klima aldaketa gaur egun pil-pilean dauden gaiak dira. Momentuz klima aldaketak zuzenean espezieen migrazioan izan dezakeen eragina identifikatzea eta zehaztea lortu ez bada ere, nolabaiteko eragina izan dezakeela aurreikusten da. Zenbait espezieek migrazio bideak aldatu dituztela ikusi da, baina, oraindik goiz da aldaketa honen atzean klima aldaketa dagoela ondorioztatzeko.

Klima aldaketaz haratago, hegaztien ongizatea kolokan jar dezakeen beste faktore garrantzitsua habitataren suntsipena da. Gaur egun arte Txingudi badien padura asko galdu dira eta oraindik ezinbestean errepikatzen den egoera da. Horregatik, txorien bidaia laguntzeko ezinbestekoa da Plaiiundi bezalako erreserbak sortzea. Sare moduan honelako ezeguneak kont-

serbatzea lortzen bada, hegaztien bidaia era nabarmenean lagunduko litzateke.

## Hegaztien identifikazioa

Mundu zabal honen barnean txoriek identifikatzeko mila trikimailu daude. Europa mailan 500 espezie baino gehiago daude eta Plaiiundiko eremutik erdia baino gehiago igarotzen dela kalkulatu da. Urtero 180 espezie inguru zenbatzen dira parkean migrazioak eragindako bioiztasun altuaren ondorioz. Espezie bakoitza identifikatzeko trikimailu ezberdinak egon arren, prismatiko edo teleskopio baten laguntza ezinbestekoa da. Bestetik, hegazti-gidak oso lagungarriak izan daitezke ere eta oso komenigarria da ornitologo batekin elkartzea. Esaterako, urriaren 6an Plaiiundin ospatutako Hegaztien Eguna jende asko hurbildu zen, horien artean haurrak zeuzkaten familiak.

Hegaztien mundura hurbiltzeko beste modu bat Zientzi Hiritarra egitasmoaren barnean aurrera ematen diren proiektuak dira. Honela, parte-hartzaileei hegaztien mundua ezagutzeko aukera eskaintzen zaie, datuen bilketan eta kudeaketan laguntzen duten bitartean. Txingudi Ekoetxean honelako proiektuak martxan jarri zigaztiak gainontzeko biztanleei hurbiltzeko ahalegina egiten da.



## Gorakada garaia Real Union taldearentzat



Argazkia: Real Union

**Real Union taldeak gorakada garaia bizi du azken bi partiduetan lortutako garaipenen ostean. Alberto Iturraldearen mutilek urriaren 12an etxeko zelaian jokaturako partiduan lortu zuten denboraldiko bigarren garaipena Real Valladolid B taldea etxea garaitu ostean. Azken garaipen honen ostean, Real Union taldea Bigarren dibisioko B taldeko 2. Taldearen 12. postuan aurkitzen da.**

Talde irundarrak denboraldia hasi zenetik bere bigarren garaipena eskuratu zuen urriaren 12 Stadium Gal zelaian Real Valladolid B taldearen aurka jokaturako partiduan. Markagailuan 2 puntu lortu zituen talde txuri-beltzak, aurkariak partiduan zehar gol bakarra sartu zuten bitartean. Azken garaipen hori lorpen garrantzitsua izan da taldearentzat, izan ere, denboraldiko bigarren garaipena izateaz gainera, Real Valladolid B taldeko lehen postuetan sailkatua egon den taldeetako bat delako kontutan hartuta.

Markagailua Jorge Galánek partiduen seigarren minutuan sartutako golarekin estreinatu zen, talde irundarraren aldeko abantaila zabalduz. Partiduen hasieratik Alberto Iturraldearen mutilek izaera defentsiboa mantendu zuten partidaren lehen zati osoan, Valladolideko jokalariek baloia ukitzeko aukera gehiago izan baitzituzten.

Bigarren zatiaren hasieran, aldiz, lehen zatiko egoera errepikatu zen, urduritasun uneak norgehiagokaren amaieran pilatu ziren bitartean. Asier Etxeburu jokalaria Real Union taldearen bigarren gola sartu zuen partidaren 87. minutuan eta, pare bat minutu beranduago, Valladolideko taldea markagailuan estreinatu zen Navarro jokalaria atean sartutako lehen baloiarekin. Azken minutuetako urduritasunen ostean, garaipena etxean gelditu zen azkenean eta Real Union taldeak lehen hiru puntuak lortu zituen denboraldi honetan zehar etxean jokaturako partidu batean.

**Garaipenek ekarritako lasaitasuna**  
Real Union taldeak denboraldiko 7. partidura arte itxaron behar izan duen aurtengo ligako lehen garaipena eskuratzeko. Garaipen bikaina izan zen gainera, izan ere markagailuan 4 puntu lortu baitzituen

**“Garaipenek, jeitsiera postuetatik aldentzeaz gainera, bide ona jarraitzen ari garela erakusten digute”**

Alberto Iturralde, entrenatzailea

Amorebieta Kirol Elkarteak puntu bakkarra lortu zuen bitartean. Lehen garaipen horren ostean, Alberto Iturralde entrenatzailearen balorazioa postiboa izan zen, “asteak pasa eta garaipenik lortzen ez zela ikusi ostean, lehen garaipenak taldeari lasaitasunez arnasteko aukera eman dio”. Jokalarien artean ere garaipenak ekarritako lasaitasuna nabari da, Dani Estrada eskuin-alboko jokalaria deklaratiboki agerian utzi dutenez: “bazen garaian partidu bat irabazteko, izan ere, aurreko partiduetan taldeak lan ona egin du, irabaztea ezinezkoa izan zaigun arren”.

**Sailkapen orokorra**  
Bi garaipen hauen ostean Real Union taldea Bigarren maila Bko 2. Taldeko 12. postuan aurkitzen da. Orain arte jokaturako partiduetan 2 garaipen, 3 berdinketa eta 3 partidu galdu dituzte. Guztira, 9 puntu dauzka momentu honetan talde txuri-beltzak. Sailkapeneko lehen bi postuetan Bilbao Athletic eta UD Logroñes taldeak daude, horietako bakoitza 17 punturekin. Alberto Iturralde entrenatzaileak azaldu duenez, “Ligako lehen asteetako partiduek garrantzi berezia dute talde guztien arteko lehia handia baitago”.

**Hurrengo hitzorduak**  
Era horretan, entrenatzaileak taldeak orain arte jokaturako partiduetan lortutako emaitzei garrantzia emateaz gainera, Real Union taldearen hurrengo hitzorduen prestaketa egokian kontzentratu nahi da. “Garaipenek, jeitsiera postuetatik

aldentzeaz gainera, bide ona jarraitzen ari garela erakusten digute”. Honela, talde txuri-beltza taulako erdialdeko postuetara hurbildu nahi da.

Hurrengo hitzorduetan Real Union taldeak Bilbao Athletic eta UD Logroñes taldeei aurre egin beharko die. Dani Estrada jokalaria azaldu duenez, “etxean jokaturako partiduetan garaipenak lortuz taldea indartsu egitea garrantzitsua da”. Bi talde horiek sailkapenaren lehen postuak betetzen dituzten taldeak dira, beraz, aurkari indartsuak izango dira talde irundarrarentzat. Hala ere, taldeak azken partiduetako estrategia jarraituz gero, markagailuan gailentzeko aukerak izango ditu azken partiduan gertatu bezala.

**“Etxean jokaturako partiduetan garaipenak lortuz taldea indartsu egitea garrantzitsua da”**

Dani Estrada, eskuin-alboko jokalaria



Fernando Vergara  
argazkilaria  
Letxumborro hiribidea 100,2º  
20305 Irun  
943 840 113 - 647 930 484  
www.fotogover.com  
www.fotogoverbodas.com  
info@fotogover.com





Ander Elozegi:

## “Hurrengo helburua Tokioko txapelketa oso ondo prestatzea izango da”



Santiagotarrak Kirol Elkar-teko Ander Elozegi, Klara Olazabal eta Joan Crespo kirolariek emaitza bikainak lortu dituzte Eslalomeko Munduko Txapelketan: 5 domina eta 5. postu bat. Gainera, Seu d'Urgeleko kanalean Ander Elozegi kirolari irundarrak 2020 urteko Tokioko Joko Olimpikoetan parte hartzeko pase zuzena lortu du C1 gizonetako zilarrezko domina bereganatu ostean.

### Nola aurkitzen zara mundialeko lorpenen ostean?

Egia esan, oso ondo. Oso pozik nago lortutako emaitzak onak izan direlako eta, gainera, Tokiorako txartela lortu dudalako. Beraz, txapelketa perfektua izan dela esan dezaket.

### Hasieratik mundialean emaitza onak lortzeko aukera zenuela ikusi zenuen?

Aurretik banekien momentu on batean aurkitzen nintzela. Sentsazio positiboak nituen eta nire mailan egon ezker emaitza onak lortzeko aukerak izango nuela ikusten nuen. Pozik nago finaleko jeitsiera ondo egitea lortu nuelako eta, azkenean, zilarrezko domina lortu nuelako.

### Urduritasunen artean, txapelketaz dis-

### frutatzeko aukera izan zenuen?

Final-erdiko jeitsieran akatsen bat egin nuenez, helburua akats horiek konpontzen saiatzea zen gainontzekoa mantentzeaz gainera. Jeitsieran nire burua indartsu ikusi nuen eta oso jeitsiera ona egitea lortu nuen. Dena aurreikusi bezala atera zen eta disfrutatzeko aukera izan nuen.

### Zilarrezko dominaz gainera, olinpiadetarako pasea lortu duzu ere?

Txapelketa berezia izan da, mundialaz gainera, Tokiorako txartela jokoan zegoelako. Helburuetako bat hori zen, finalerdian jeitsiera on bat egitea txartela lortzeko eta, behin finalean egonda, domina lortzeko borrokatzea. Bi helburuak bete ziren azkenean eta txapelketa perfektua izan zen bi sariak lortu izanagatik.

### Etxekoan berotasuna iritsi zitzaizun?

Bai, L'Seu de Urgel-eko kanala oso kanal ezaguna da guretzat, ondo moldatzen gara bertan eta abantaila txiki hori ondo aprobetxatu genuen. Gainera, Irungo jende asko animatzera etorri zen. Jaisten zaren bitartean animoak bereiztea zaila den arren, badakizu jendea hor dagoela eta horrek asko laguntzen du.

### Lorpenen ostean ospatu eta deskant-

## “Nire burua ondo ikusten dut, baina, zaila da aurreikuspenak egitea”

### satzeko tartea izan duzu?

Etxean astebete daramat eta Tokiorako maleta prestatzen hasi naiz jada, izan ere, urriaren 11ean Tokiora goaz, beraz, ospakizunetarako tarte gutxi izan dut.

### Noiz hasiko zarete Tokioko Olinpiadak prestatzeko entrenamenduekin?

Laster hasiko gara. Mundialeko etapa itxi ostean, txartela eskuetan dudala, hurrengo helburua Tokioko mundiala oso ondo prestatzea izango da. Prentakuntza Tokiora egingo dugun lehen bidaia honekin hasiko da.

### Olinpiadak prestatzeko entrenamenduak oso ezberdinak dira?

Ez, entrenamenduak nahiko antzekoak dira. Helburua Tokioko kanala ondo ezagutzeko da, ur mugimenduak kontrolatzeko. Tokion ahalik eta gehien entrenatzen saiatuko gara. Bestetik, prentakuntzari dagokionez, ahal dena hobetzen saiatuko naiz.

## “Aurreko bizipenak honelako erronken aurrean nola erantzun jakiteko lagungarriak dira”

### Olinpiadetara begira aurreikuspenen bat egitera ausartuko zinateke?

Nire burua ondo ikusten dut, baina, zaila da aurreikuspenak egitea. Aurreko emaitzak hobetzeko aukera ikusten dudalako entrenatzen ari naiz eta helburua beti domina lortzea izango da, zaila izan badaiten ere, aukera hor dago eta.

### Ez dira zure lehen olinpiadak, beraz, esperientzia lagungarria izango zaizu?

Bai, aurreko bizipenak honelako erronken aurrean nola erantzun jakiteko lagungarriak dira. Esperientzia badu eta asko lagunduko nauela uste dut, nahiz eta Olinpiada bakoitza ezberdina izan. Tokioko kultura oso ezberdina da, beraz, bidaia hara joan eta bertan dagoen giroa ezagutzeko aprobetxatu nahi ditugu emaitza hoberenak lortu ahal izateko.



ezagutu  
gure lanak  
kode hau  
eskaneatuz

2020an  
ezkonduko  
zara?

ESTUDIO  
GO  
VER™  
FOTOGRAFIA

**Ezkontza argazkilariak**

Letxunborro hiribidea 100,2.

20305 Irun (gipuzkoa)


943 840 113 - 647 930 484

[hola@fotogoverbodas.com](mailto:hola@fotogoverbodas.com)

[www.fotogoverbodas.com](http://www.fotogoverbodas.com)

Izena: Nahia de Juan

# Elatzeta LH2



# Denborapasak

## Zazpi hitz: Kirolak

S	S	V	I	A	N	I	D	E	E	C	A	I	E	
A	T	L	R	L	A	I	B	G	U	R	R	E	E	A
S	A	B	A	I	G	A	A	R	E	I	K	A	D	U
K	R	P	A	R	A	A	A	A	B	R	T	O	A	O
I	A	I	R	A	L	S	I	L	S	K	R	K	O	S
B	H	E	S	A	R	R	A	U	N	A	K	A	N	S
A	T	P	S	N	S	I	N	N	I	A	B	E	R	D
L	K	A	A	K	V	G	A	E	T	C	G	O	A	A
O	A	L	I	A	U	D	A	E	X	A	K	E	A	G
I	E	A	K	O	L	B	K	E	R	R	U	E	M	N
A	A	Q	E	R	G	I	A	A	O	I	C	O	C	A
B	L	E	U	C	R	N	G	L	A	B	T	N	A	S
G	R	R	A	E	O	I	T	E	O	P	E	A	P	Y
I	S	S	G	U	R	P	E	A	E	I	R	O	K	E
A	E	I	E	A	A	B	U	A	O	A	A	I	U	

		8						7
2				3				6
9		7		1		2		
	4							5
7						6	9	
3	2	6	8	5			4	
6							8	
	5			8			7	3
1						4	6	2

Saskibaloia, errugbi, eskubaloia, arrauna, pala, igeriketa, xake

# Euskaraz, Irunen barrena

## Esaera zaharrak

«Urdai azpikuak ezkiñ batian gizena eta bestian giñarra»

Orrek esan nai du, denak badugula ijeniyotarra eta ona.

Irungo Kateako S.R.A. andereari jaso (1959ko Iraila).  
(El Bidasoa, 1959-X-31)

**Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga**  
Euskaraz, Irunen barrena

## San Vicente de Paul DBH3

### Euskaraldia festa San Vicente de Paul eskolara iritsi da

Euskaraldia euskara bultzatzeko egiten da eta horregatik San Vicente de Paul ikastetxeko DBHko ikasleek LHko ikasleei joko batzuk prestatu genizkien abenduaren 3, 4 eta 5ean.



San Vicente de Pauleko patioan, DBHko 3. eta 4.

mailako ikasleek hainbat aktibitate antolatu genizkien abenduaren 3, 4 eta 5ean LHko ikasle taldeei, neska eta mutileri gogorarazteko nolako garrantzia duen euskaraz, hizkuntza hori lantzeko eta euskara ez dakiten gure inguruko ikasleei irakasteko.

San Vicente de Pauleko irakasleek power point batekin azaldu ziguten zertaz doan Euskaraldia eta zer egingo genuen ikasleek egun hauetan.

Bi motatako txapak zeuden. Txapa bat ahobizi deitzen zen, eta txapa hori zeramatenek, beti euskaraz hitz egin behar zuten. Beste txapa, belarriprest izenekoa zeramatenek, berriz, beraiei euskaraz hitz egitea eskatzen zuten eta beraiek beste hizkuntza batean erantzun zezaketen. Txapak, bi egun lehenago egin ziren makina batekin, denek denbora izateko ondo prestatzeko.



Laugarren eta hirugarren ikasturteko ikasleek, joko batzuk prestatu genituen lehen hezkuntzako ikasleentzat. Egun desberdinetan egin ziren eta beti euskaraz hitz egin behar zenuen ahobizi bazinen. Taldeetan banatu ginen eta talde bakoitzak bi edo hiru arduradun zituen txikiei jokoak azaltzeko. Hamar joko zeuden jokatzeko eta txikiak hamar minutu pasa eta gero, aldatzen joaten ziren. Jokoak euskaraz mintzatzeko eta euskararen hizkera sustatzeko egin ziren. Umeei oso ondo pasa zuten jokoak jolasten.

*Egileak: Irene Allor, Haizea González, David, Aitor eta Alejandro.*



# bideosare

*Bideoak zure erara!*



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



# Ingurumena zaintzeko konpromisoa hartu du Txingudi ikastolako ikasle talde batek



**Txingudi Ikastolako ikasle talde batek ingurumena zaintzeko konpromisoa hartu du. Proiektuaren abiapuntuan Greta Thunberg aktibistak martxan jarritako "Fridays for future" (Etorkizunerako ostiralak) mugimendua eta eskolak Agenda 21 proiektuarekin duen konpromisoa daude oinarrian. Orain arte aurrera eramandako ekintza nagusia eskola zeharkatzen duen ibaiaren garbiketa izan da eta etorkizunean ekintza gehiago aurrera eramateko asmoa dute. Natalia Treusek eta Xabier Blancok ikasle taldearen helburuak azaldu dituzte.**

## Zergatik erabaki zenuten proiektua martxan jartzea?

Natalia: Ikasleen artean beti esan izan dugu gure planeta zaintzea oso garrantzitsua dela, izan ere, gure bizitokia da. Gure artean hitz egin ostean, Karmele zuzendariarekin hitz egin eta proiektua martxan jartzeko baimena eskuratu genuen.

## Irakasleen partetik laguntza izan dezue?

Xabier: Bai, batez ere, Agenda 21 proiektuko arduradunen laguntza izan dugu, zuzendaritzaren baimenez gainera.

## Noiz egin zenuten ibaiaren garbiketa?

Xabier: Ikastola zeharkatzen duen ibaiaren garbiketa joan den urtean antolatu zen lehen aldiz. DBHko 4.mailako ikasleek antolatutako jardura izan da beti eta, gure kasuan, garbiketa, irailaren 27an egin genuen. Hortaz gain, ikastolako Areto Nagusian bideo emanaldia antolatu genuen ere, kontzientziazio eta eztabaidarako tartea izateko.

Natalia: Bai, izan ere, nahiz eta ibaiak edo kaleak garbitu, klimarekin loturiko arazoekin kontzientziazioa lortzen ez bada, egindakoak ez du ezertarako balio. Beraz, gure lehen pausoa ikasleak kontzientziatzen saiatzea izan zen, jendeak honelako ekintzak egitea beharrezkoa dela sinisteko.

## Zein balorazio egin zenuten eskolan

## egindako garbiketaren inguruan?

Xabier: Garbiketa talde lan bezela antolatu genuen azkarrago lan egiteko eta, era berean, inguruan dugun egoeran guk ere eragiten dugula ikustarazteko. Ekintza honen bitartez guk izorratutakoa kontontzen saiatu ginen.

## Zein motako zaborra bildu zenuten?

Xabier: Gehienbat plastikoak, hamaiketakoaren ostean sortzen diren hondakinak edo paperak. Bildutako materialarekin pankarta bat osatu genuen eta ikastolaren sarreran ipini genuen, gainontzeko ikasleek ikastolan sortzen den zaborra ikus dezaten.

## Garbiketaren ostean, gauza gehiago antolatzeko asmoa duzue?

Natalia: Bai, hilabete bakoitzeko ostiral bat antzeko ekintzen antolaketara bideratzeko asmoa dugu. Hurrengo ekintzetan pista edo jolastokiaren garbiketa antolatu, gaiaren inguruko bideoak egin edo bestelako gauzak egin ditzazkegula bururatzen zaigu.

## Nolako jarrera erakutsi du jendeak orain arte antolatutako ekintzekiko?

Xabier: Jendeak bere kezka erakusten digu eta orokorrean parte-hartzea ona izan da.

Natalia: Hasieratik argi eta garbi utzi genuen borondatezko ekintza bat zela. Horrela, biltzen den jendea lan egiteko gogoz datorrela zihurtatzen dugu.

## Garrantzitsua iruditzen zaizue eskolan honelako gaiak lantzea?

Xabier: Bai, betidanik esan digute etxean jasotzen ditugun ideiek pisu handia dutela. Hala ere, eskolan denbora asko pasatzen dugunez, lagunartean horrelako ideiak zabaltzea garrantzitsua dela uste dugu.

Natalia: Ez hori bakarrik, eskolan gure burua garatzen dugula suposatzen denez, zaborraren kudeaketa egokiarekin lotutako ideiak barneratzeak gure etorkizuneko jokabideak baldintzatu ditzake.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meakak auzoa, 9 - 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com





- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berria
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Webgunean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## IGazteko neguko ordutegia

Urriaren 1etik aurrera, Igazteko neguko ordutegian izango gaituzue:

- Asteleheneretik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

- Astelehen eta asteazkenetan: 17:00etatik 19:30etara.

Hala ere, gogoratu internete bidez bulegoaren ateak 24 orduz zabalik dauzkagula egunero eta 607 771 173 telefono zenbakian WhatsApp aplikazioaren bitartez ere zerbitzua eskaintzen dugula.

## Merkalan: Lanbideren enplegu eta formakuntza azoka



Lanbide Merkalán antolatuta du, enplegu eta formakuntza azoka, non Euskadiko enpresen eta enplegu-eskaintzaileen premiak bilduko diren.

**Nori zuzendua?** Euskadiko 100 enpresa baino gehiagok ordezkari zuzena eta/edo zeharkakoa izango dute ekitaldian. Gainera, azokan hainbat profiletako 700 lanpostu baino gehiago eskainiko dira eta elkarrizketa profesionalak egingo dira.

- Noiz: Urriak 21 eta 22.

- Non: Donostiako Kursaal Kongresu jauregian.

- Ordutegia: Goizeko 9:00etatik 17:30etara.

- Sarrera librea eta doakoa.

- Lan elkarrizketak aurretiazko hitzorduekin.

## That's English! Salbatuko zaituen ingelesezko urrutiko ikastaro ofiziala

That's English! Hizkuntza irakaskuntza ofizialeko urrutiko lehenengo ingelesezko ikastaroa da, Hezkuntzako Ministerioak sortutakoa. Ikastaroak material didaktiko bikaina eskaintzen du (liburu, ariketa, koaderno, audio CD eta DVDak), That's English! Plataformarako sarbidea den modu interaktiboan egin ahal izateko eta, nahi izanez gero, tutoretzak dagokion eskolan.

- Lortu daitezkeen ziurtagiriak: Oinarriko mailako ziurtagiriak (A2) eta tarterko mailako ziurtagiriak (B1 eta B2).

- Izen-emate epea: 2019ko urriaren 31ra arte.

- Informazio gehiagorako arduradunen kontaktua: 695 769 135.

## 2020ko udan atzerrian hizkuntzak ikasteko bekak

Eusko Jaurlaritzak 533 plaza eskaintzen ditu Irlanda, Erresua Batua, Frantzia eta Alemanian hiru asteko egonaldi eta hizkuntza ikastaroak egiteko 2020ko udan.

- **Norentzat:** DBH-ko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleentzat.

- **Izen-emate epea:** 2019ko urriaren 25era arte.

- **Betekizunak:**

- Beranduenez 2020an 19 urte betetzea.

- Aurreko ikasturtean zehar gutxienez 7 puntuko nota lortu izana eskatutako hizkuntzetan eta 16 puntuko nota izatea batz besteko nota eta eskatutako hizkuntzetan lortutako nota batu ostean.

- Eskatzen den plazari dagokion/dagozkion hizkuntza/hizkuntzak ikasten aritzera eskaera dataren aurreko bi ikasturteetan (2017-2018 eta 2018-2019).



**Folder**  
Paper-dendarik merkeena  
**ZIURTATUTA**

Kolon ibilbidea, 2  
(atzeko aldea)  
[www.kopiar.net](http://www.kopiar.net)  
[kopiar@kopiar.net](mailto:kopiar@kopiar.net)  
943 63 93 01

# Urriak

## 17

### Kiroltech

**Kiroltech:** Kirol berrikuntza eta teknologiaren inguruko I. kongresua.

**Zer:** Kirolarekin lotura espezializatua duten profesionali zuzenduriko ekintza.

**Non:** Ficoban.

**Sarrera:** Doan, aldeztu aurretik izena emanda.

**Gonbidapenak:** Internet bidez eskuratu behar dira kongresuaren webgunean.

## 18

### Musika: Maribop taldearen kontzertua

**Zer:** Francesco Giglio, Peter Walsh eta Urbil Artolaren musika emanaldia.

**Non:** Oiaso Erromatar Museoan.

**Ordua:** 20:00etan.

**Prezioa:** Sarrera libre aretoaren edukiera bete arte.

## 19

### Kontzertua: "A dos bandas" eta Irungo Musika Bandaren kontzertua

**Zer:** Joaquin Sabina abeslariaren tributoa egiten duen taldea da "A dos bandas".

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 20:00etan.

**Sarrerak:** Sarrera orokorra 7,55 euro.

**Salmenta:** Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan eta leihatilan ikuskizunaren egunean bertan.



### Denbora-pasen emaitzak

S	V	I	A	N	I	D	E	E	C	A	I	E		
A	L	L	A	L	S	G	U	R	N	B	E	A		
A	S	A	I	G	A	A	R	E	I	E	A	D	L	
H	H	A	R	A	A	A	A	B	E	R	T	C	A	D
A	T	R	A	L	F	I	L	S	K	R	H	O	C	
H	E	S	A	R	A	L	U	N	A	R	A	N	S	
A	T	P	E	N	E	I	N	I	E	E	R	D		
K	A	K	V	G	A	T	T	C	G	G	A	R		
V	A	L	L	A	L	S	G	U	R	N	B	E	A	C
S	E	A	K	O	L	T	E	R	R	L	E	N	B	
A	Q	P	R	G	A	A	D	I	C	C	O	R		
B	L	E	C	H	O	A	D	T	H	A	S			
G	R	A	F	O	I	T	S	P	E	A	P	V		
L	S	S	L	U	R	V	E	A	E	L	H	O	K	E
A	E	S	T	A	A	B	U	R	G	A	A	T	L	

4	5	8	2	9	6	3	1	7
1	2	7	8	4	3	9	5	6
3	9	6	7	5	1	8	2	4
6	8	4	1	7	9	2	3	5
5	7	1	3	2	4	6	9	8
8	3	2	6	8	5	7	4	1
7	6	3	4	1	2	5	8	9
2	4	5	9	6	8	1	7	3
8	1	9	5	3	7	4	6	2

## 20

### Gipuzkoako Bertso Txapelketa

**Zer:** Bigarren final laurdena.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 17:00etan.

**Prezioa:** Sarrera arrunta 12 euro; gazteena 5 euro; bazkidedunena 9 euro.

**Salmenta:** Internet bidez [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean edo leihatilan ikuskizunaren egunean bertan.

## 24

### Liburutegiaren Eguna

**Zer:** Liburutegiaren Eguna ospatzako ekintza ezberdinak eta kale animazioak.

**Non:** CBA Udal Liburutegian.

**Ordua:** Egun osoan zehar.

**Sarrera:** Libre.

**Ekintzen programa:** CBA Udal Liburutegiaren webgunean kontsultatu.

## 26

### Antzerkia: "Cirmen y telón"

**Zer:** "Ron Lála" antzerki, umore eta musika taldeak bere ikuskizun berria aurkeztzen du.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 20:00etan.

**Sarrera:** Sarrera orokorra 14,60 euro; langabatuak, 14 urtetik beherakoak eta Gazte Txartela dutenek 9,40 euro.

**Salmenta:** Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan eta leihatilan ikuskizunaren egunean bertan.



## Aste Urdinaren barnean antolatutako ekintzetan parte hartu du Caser Residencialek



Urriaren 7tik 12ra Aste Urdinaren barnean antolatutako ekintzetan parte hartu du Caser Residencialek bere egoiliarrekin batera. Aste Urdinaren inguruan belaunaldi arteko eta mugaz gaineko era askotariko ekintzak antolatzen dira Frantzia osoan. Aurten Caser Residencial egoitzetako egoiliarrek hirugarren urtez parte hartu dute Hendaian antolatutako jardunaldi horietan.

Aste Urdinaren barneko jarduerak urriaren 7an abiatu ziren. Serge Minguet eta Bernard Bayle-k Hegoaldeko plazan antolatutako Hendaia adinekoen portreten argazki erakusketa eguneko ekintza nagusietako bat izan zen. Aurrerago erakusketa bera Caser egoitzetan ikus-teko aukera egongo da. Bestetik, arratsaldean, 15:00etatik 17:00etara jarduera ezberdinak antolatu ziren

adineko pertsoneri zuzendutako yoga, prebentzio jarduerak eta musika tresnekin loturiko ekintzen bitartez.

Urriaren 8an, asteartean, ekintzak Caser Betharrameko egoitzara irtsi ziren, izan ere, mugaz-gaindiko eta belaunaldien arteko sukaldaritza lehiaketa antolatu zen bertan Hendaia, Irun eta Hondarribiko adinekoen eta Aizpardi Lanbide Lizeoko ikasleen parte hartzearekin. Urriaren 9an asteazkenean, berriz, eguerdian mahai jokoak eta belaunaldiarte karta txapelketa antolatu ziren. Arratsaldean zinemaren txanda izan zen Variétés zinemagelan l'oeil du tigre (tigrearen begia) pelikularekin.

Urriaren 10ean, ostiralean, belaunaldiarte altxor bilketa antolatu zuen Denak Lagun elkarteak, ostean, buf-

fet goxoaz gozatzeko aukera eskaini zuelarik. Urriaren 11ean, larunbatean, Recyclárte elkarteak "Berriz zelara igan", seguruago ibiltzeko jardueraren antolaketaz arduratu zen. Ostean, arratsaldeko 15:00etan "ongi zahartu, hobe lo egin: loa, osasunerako laguntzailea" ekintzaren txanda izan zen. Arratsaldeko 20:00etan egunari amaiera emateko "Toujours folles" (beti ero) Biriaturko Aintzat elkarte adinekoek anterkiarekin disfrutatzen zuten aukera izan zuten Soko gelan.

Azkenik, urriaren 12an, goizeko 10:00etatik 12:00etara euskaraz antolatutako senitarteontzako antzerki lan-tegia jarduerarekin amaiera eman zitzaion 2019ko Aste Urdinaren barnean antolatutako jardueri.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN  
ONGIZATEA HELBURU  
Egonaldi iraunkorrak  
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM